



EUSKARAZKO UDALEKUETAN (D EREDUA) PARTE HARTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

2024. urtea

Zizur Nagusiko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, euskara hutsez egindako udalekuetan parte hartzea diruz lagunduko du, beti ere, jarraiturik honako

OINARRIAK:

LEHENA.- Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honek xedea du eduki ludikoak, kiroltakoak eta/edo naturarekin harremanetan egotekoak proposatzen dituzten euskarazko udalekuak, D ereduko ikasleentzat antolatzen direnak, sortzen duen gastua hein batean finantzatzea. Dirulaguntza hauek 2024. urteko aurrekontuko 1-33502-48000 - *Euskarazko Udalekuen dirulaguntza* diru-sailaren kontura joango dira. Xede honetarako, gehienez ere, 1.500 € erabiliko dira.

1.2. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, ordea:

- Zizur Nagusiko Udalaren bidez, zuzenean zein zeharka, kudeatutakoak – bai Udalaren dirulaguntza jasotzen dutenak ere –, horien kuota jadanik Udalaren dirulaguntza sartuta baitago.
- Txango eta bidaiak.
- Udalerrian edo udalerritik hurbil egonda barnetegi erregimena eskatzen ez dutenak.

BIGARRENA.- Diru-laguntza eskatzeko baldintzak.

2.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eskatu ahaliko dute euskarazko udalekuetarako dirulaguntza:

- LHko edo DBHko ikaslea izatea.
- D ereduko ikaslea izatea (ikastetxe publiko edo ikastolan euskaraz ikasten dutenak).
- Zizur Nagusian erroldatua egotea udalekuak irauten duen bitartean eta dirulaguntza eskatu eta ebazten den bitartean.

HIRUGARRENA.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Diruz lagunduko dira D ereduko ikasleentzat (ikastetxe publiko edo ikastolan euskaraz ikasten dutenak) antolatutako euskara hutsezko udalekuak, hau da, bizilekua den udalerritik kanpo egonaldietan parte hartzeagatik sortutako gastuak.

3.2. Haur/gazte bakoitzak udaleku bakarrarengatik jaso ahaliko du dirulaguntza.

3.3. Udalekuak 5 egun (4 gau) baino gehiago eta 15 egun (14 gau) baino gutxiago iraun beharko du, eta udako oporraldian gauzatuko da (ekainaren 20tik irailaren 4ra).

LAUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

4.1. Eskabideak irailean aurkeztuko dira Zizur Nagusiko Udalaren Erregistroan. Horretarako deialdi eskabide orokorra bete eta sinatu beharko da. Eskabideekin batera deialdi honetako bosgarren oinarrian ezarritako agiriak eta informazioa erantsi beharko da.





4.2. Eskabideak aurkezteko epea luazezina da.

4.3. Aurkeztutako eskabideak deialdi honetan ezartzen diren baldintzak edo agiriak beteko ez balitu, eskatzaileari, gehienez ere, hamar eguneko epe luazezinean horiek aurkezteko eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik eginiko ebazpen bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan adierazten duen bezala.

BOSGARRENA- Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioa.

5.1. Eskabidearekin batera ondoren aipatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztu beharko dira:

- Eskatzailearen guraso baten edo legez ordezkatzan duen tutore baten Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Familiaren diru-sarrera gordinak adierazten dituen agiria (2022ko errenta aitortpena).
- Adinez txikia eskolatuta dagoen ikastetxearen eskolatzeko-agiria, non ikastetxearen izena eta hizkuntza ereduak zein den agertzen den.
- Udalekua antolatzen duen entitateak izenpeturiko dokumentua, non hari buruzko baldintzak – euskarari emandako tratamendua eta helburu linguistikoak, iraupen datak, jardueren egitaraua edo liburuxka, prezioa - eta asistentzia egiaztatzea azaldu behar diren.
- Udalekuaren matrikula ordainagiria (banketxeak egindakoa) non kostuaren %100 ordainduta agertuko den.
- Dirulaguntza jaso nahi den kontu zenbakia (IBAN).
- Erantzukizunpeko adierazpena (1. eranskina) eta Helburu bererako dirulaguntza eskatzeko erantzukizunpeko adierazpena (2. eranskina).

SEIGARRENA.- Eskabideen balorazioa.

6.1. Eskabideak ondoren adierazten den bezala baloratuko dira:

- Kontutan hartuko dira familiaren urteko diru-sarrera gordinak (errenta aitortpeneko 507, 8810 eta 8808 laukitxoetako kopuruen batura ken 708 laukitxoko kopurua) eta familia unitatea osatzen duten pertsonen artean zatitu.
- Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitortpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, edo, aitortpena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrera gordinen Zinpeko Aitortpena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriekin frogatu.
- Aurreko guztiak aparte, eskatzailearen familiako diru-sarrera errealak frogatzeko, Udalak beharrezkoak baisten dituen frogak-agiri guztiak eska ditzake.

6.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, 125 eurokoa izanen da eta ondorengo baremo ekonomikoaren arabera banatuko da:

PCE <5.000 €	%60
PCE 5.001 € eta 8.000 € artean	%50
PCE 8.001 € eta 10.000 € artean	%40
PCE 10.001 € eta 15.000 € artean	%30
PCE 15.001 € eta 20.000 € artean	%20
PCE >20.000 €	%10





PCE familiaren Per Capita Errenta da, eta haren balorazioa deialdi honen 6.1 atalean adierazi bezala egiten da.

6.3. Beka horiek urtero eskatuko dira, eta une bakoitzean eman ahal izateko, Udalak eskatu den ekitaldi ekonomikoan dituen aurrekontu-baliabideak kontuan hartu beharko dira.

6.4. Nolanahi ere, eta aurrekontu-erabilgarritasun horren eta eskatzaileen kopuruaren arabera, beharrezkoa izanez gero, proportzionalki murriztuko da onuradun bakoitzari dagokion ekarpena.

ZAZPIGARRENA.- Eskabideen azterketa eta ebazpena.

7.1. Aurkeztutako eskabideak Euskara Zerbitzuak baloratuko ditu eta, ebazpen proposamena egiteko, ofizioz burutuko ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkoak estimatzen dituen jardunbideak.

7.2. Dirulaguntzak Udalaren Ebazpen bidez emanen dira.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpena emateko epea.

8.1. Ebazpena, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean emanen da.

8.2. Epe hori pasatzen bada inolako ebazpenik eman gabe, eskatzaileak eskabidea ezeztatua bezala ulertu ahalko du.

BEDERATZIGARRENA.- Jakinarazpena edo argitaratzea.

9.1. Kontzesio ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie 2017ko urriaren 13ko (198 zenbakiko NAO on argitaratua) Udal Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera.

9.2. Kontzesio ebazpena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaio eta bertan deialdia, egitaraua eta aurrekontu kreditua zehaztuko da, bai eta onuraduna, emandako kantitatea eta xedea.

9.3. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- Berraztertze helegitea, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien epaitegiari edo sailari zuzendua.
- Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

HAMARGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa.

10.1. Emandako zenbatekoa hilabeteko epean ordainduko da, diru-laguntzak ebatzi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.





SELLO
Publicado en tablón de anuncios electrónico
20/02/2024



Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayer.es

- 1 ERANKINA / ANEXO 1 -

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Izen-abizenak _____ NAN,IFZ,AIZ
Nombre-Apellidos _____ DNI, NIF, NIE _____
Helbidea _____ P.K. _____
Domicilio _____ C.P. _____
Herria _____ Tfnoa. _____ Posta elektronikoa _____
Localidad _____ Tfno. _____ Correo electrónico _____

☐ BERE IZENEAN edo/o ☐ ONDOKO HONEN ORDEZKARI GISA
EN NOMBRE PROPIO EN REPRESENTACIÓN DE:

Izen-abizenak _____ NAN,IFZ,AIZ
Nombre-Apellidos _____ DNI, NIF, NIE _____
Helbidea _____ P.K. _____
Domicilio _____ C.P. _____
Herria _____ Tfnoa. _____ Posta elektronikoa _____
Localidad _____ Tfno. _____ Correo electrónico _____

2024ko urteko euskarazko udalekutan parte hartzeko (D eredua) dirulaguntza publikoaren deialdiaren berri izanik.

Teniendo conocimiento de la convocatoria pública de ayudas económicas para campamentos de verano en euskera (modelo D). Año 2024.

ADIERAZTEN DU / DECLARA:

- Betetzen dituela dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako onuradun izateko baldintza orokorrak eta deialdian aurreikusitako baldintza espezifikoak.
- Ez dagoela dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako onuradun izateko debekurik.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Konpromisoa hartzen duela eskatzen duen dirulaguntzaren zenbatekoa dirulaguntza emateko oinarri diren helburuak eta jarduerak betetzera bideratzeko.
- Que cumple los requisitos generales exigidos para obtener la condición de beneficiaria establecidos en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y los específicos previstos en la convocatoria.
- Que no se halla incurso en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de beneficiaria de las previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Que se halla al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- Que se compromete a destinar el importe de la subvención que solicita al cumplimiento de los objetivos y actividades que fundamenta la concesión de la subvención.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau ematen eta sinatzen dut,

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido y firmo la presente,

Zizur Nagusia, / Zizur Mayor,

_____(e)ko _____(a)ren _____(e)an

a ____ de _____ de _____

(Sinadura: / Firma:)

Datuen babesa: Prozedura administratiBoaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliho diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo balio gabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus

Protección de datos: El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayer.es



ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA

Código Seguro de Verificación: DFCA AAJY 9MJH VC3A CFLY

Deialdia udalekuak 2024

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.zizurmayer.es/>

Pág. 4 de 5



- 2 ERANSKINA / ANEXO 2 -

**HELBURU BERERAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA /
DECLARACIÓN RESPONSABLE DE SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA EL MISMO OBJETO**

Izen-abizenak _____ NAN,IFZ,AIZ
Nombre-Apellidos _____ DNI, NIF, NIE _____
Helbidea _____ P.K. _____
Domicilio _____ C.P. _____
Herria _____ Tfnoa. _____ Posta elektronikoa _____
Localidad _____ Tfno. _____ Correo electrónico _____
☐ BERE IZENEAN edo/o ☐ ONDOKO HONEN ORDEZKARI GISA
EN NOMBRE PROPIO EN REPRESENTACIÓN DE:

Izen-abizenak _____ NAN,IFZ,AIZ
Nombre-Apellidos _____ DNI, NIF, NIE _____
Helbidea _____ P.K. _____
Domicilio _____ C.P. _____
Herria _____ Tfnoa. _____ Posta elektronikoa _____
Localidad _____ Tfno. _____ Correo electrónico _____

2024ko urteko euskarazko udalekuetan parte hartzeko (D) Teniendo conocimiento de la convocatoria pública de ayudas
eredua) dirulaguntza publikoaren deialdiaren berri izanik. económicas para campamentos de verano en euskera (modelo D). Año
2024.

ADIERAZTEN DU / DECLARA:

- ☐ Deialdi honen helburu bererako beste Administrazio Publiko, Erakunde publiko, pribatu edo partikularrengandik, nazionalak zein nazioarteakoak, inolako dirulaguntzarik eskatu edo lortu ez izana.
- ☐ No haber solicitado ni obtenido ningún tipo de subvención de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria.
- ☐ Azpian adierazitako dirulaguntzak eskatu izana beste Administrazio Publikoetatik, Erakunde Publiko, pribatu edo partikularrengandik, nazionalak zein nazioarteakoak, deialdi honen helburu berbererako:
- ☐ Haber solicitado las siguientes subvenciones de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria:

Eskatutako dirulaguntzak: (adierazi data, erakundea, zenbatekoa): / Subvenciones solicitadas: (Indíquese fecha, entidad, importe)

DATA / FECHA	ERAKUNDEA / ENTIDAD	ZENBATEKOA / IMPORTE

- ☐ Azpian adierazitako dirulaguntzak lortu izana beste Administrazio Publikoetatik, Erakunde Publiko, pribatu edo partikularrengandik, nazionalak zein nazioarteakoak, deialdi honen helburu berbererako:
- ☐ Haber obtenido las siguientes subvenciones de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria:

Jasotako dirulaguntzak: (adierazi data, erakundea, zenbatekoa): / Subvenciones obtenidas: (Indíquese fecha, entidad, importe)

DATA / FECHA	ERAKUNDEA / ENTIDAD	ZENBATEKOA / IMPORTE

Zizur Nagusia, / Zizur Mayor,
_____(e)ko _____(a)ren _____(e)an
a _____ de _____ de _____

(Sinadura: / Firma:)

Datuen babesa: Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babaserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus

Protección de datos: El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayer.es

